

TOKIKOM

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria
2013eko irailaren 27a
341. zenbakia. 25. urtea



Pedalka espetxetik espetxera

Fleuryko espetxean du lagun bat eta A Lamakoan bestea Iñaki Landak, bien arteko bidea bizikletaz egin du Ainara Balenciaga alboan duela.

06

Orioko kontuak

Japoniako Telebista Orion

09

Kirol Elkarrizketa

Unai Zubizarreta

11

Aiako berri

KARKARAKultur Etxera

25

Herritarra

Maria Arruti

2GURPIL

Baxoalde 2 - 3 - 20810 Orio (Gipuzkoa)

943 835 980 www.2gurpil.com bigurpil@hotmail.com

ARKAITZ
Taberna

Pinxoak,
plater konbinatuak
eta ogitarleko mundialak

ABESLARI KALEA, 4 Tlf: 943 83 16 57

Orioko Herri Ikastola

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04

FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net

www.oriokoikastola.net

azkue
karrozeria

Ubegun industrialdea, 7 20809 Aia-Orio

Tf/fax: 943 83 51 86 Carroceriasazkue@hotmail.com

ANATORIO ZARAUZ

EUROFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

- Donostia eta probintziako ospitaleetan
- Aldi-roko zerbitzua
- Belatorio gelak
- Koroioak, eskelak, tramitazioak...

Araba kalea, 35 Zarautz

Tel: 943 88 49 37 / Fax: 943 88 49 41
e-mail: harrespil@harrespil.net

Zaragueta Herri Eskola Orio

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

azkue

Tf: 943 13 04 38

Kinkladenda - Ume arropa

argine

www.lasonet.com/argine
Tel. 943 13 48 89

25eko DESKONTUA FAMILIA UGARAREN TXARTELAREKIN

ederritegiak

ANTILLA
jatelekuak

Abeslari kalea, 2 - Tel. 943 83 29 09

Dorronoro Denda

1963tik zure ondoan

BETIKO DENDA

Tel 943 83 09 37

Carmen eta Txomin
ARRAZDEGIAR

943 83 05 37 / 943 83 27 47

Igo zaitetz haize berrietara!

Galerna I

943890416 - 677149934
galerna1orio@hotmail.com

Gabor
TABERNA

plater konbinatuak eta pinxoak

Tfnoa: 943 83 06 09

INDO

Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

PIZZERIA KALETA

ARRANTZALE KALEA, 10
TELEFONOA: 943 24 89 46

1983ko Kontxako banderari jarriak

1

Hau da momentu historiko bat nik ez nuen hainbat fede, Jainkoak nola izan dezakeen hainbeste indar ta botere. Nun arraiotik atera dezu esazu, egin mesede. Hainbeste istori entzunda dauzkat kondaira, arau ta lege. Ia ez nuen sinistu egingo existitzen zanik ere.

2

83 urte haundia ze denborada, ze urte; Zumaia hortxe, puntaren puntan, kolore gorria fuerte. Kontxa iritsi, denak kalera, bandera jarri zan merke. Gero Oriok eraman zuen, penarik ez daukat bate. Gertatu ez balitz, Zumaia aldian, zertaz hitz e(g)ingo genuke.

3

Era batera edo bestera Orio Kontxan da maisu. Ordun bezela gehiago ere izango zen zenbait kasu. Oriok bere lana egiten du beti adorez jo ta su. Eskerrik asko, detaile bat da, meritua badaukazu. Norbaitek egin argazki on bat ta berriz eraman zazu.

341

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur Etxea
Eusko Gudari, 26
20810 Orio
943 831 527
www.karkara.com

Editorea

Karkara taldea
kultur elkarte

Zuzendaria

Lore Berasaluze

Erredakzio taldea

Irati Agirreazaldegia,
Onintza Aiestaran,
Iñigo Gaiton,
Iker Gurrutxaga, Eli Lasa
eta Idurre Lizarralde

Publizitatea

Iban Egiguren

Publizitatearen diseinua

Iban Egiguren

Testuen zuzenketa

Elizabete Manterola
eta Rikardo Uzkudun

Ale honetako laguntzaileak

Amalia Irigoien,
Leire Izagirre,
eta Eukeni Santamaria

Laguntzaileak

Zigor Esoain
eta Iñaki Iturain

Diseinua

Karkara taldea

Banatzaileak

Narrea Etxeberria
eta Esti Uranga (Orioko)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Orioko)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3200 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.



KARKARA

PUBLIZITATE PREZIOAK

Iragarkia alero jarrita

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

Iragarkia behin jarrita

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko Iban Egigurenekin hitz egin (688 859 682 edo karkara@karkara.com) Prezio hauei BEZA gehituko zaie

LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA

Kultura Sailak diruz lagundutako hedabidea

Orioko katekesia

Urriaren 7an, astelehenarekin hasiko dute bigarren mailakoek katekesia, arratsaldeko bostetan.

Urriaren 9an, bostetan hirugarren mailakoak eta seiretan laugarren mailakoak.

Lehenengo mailakoak aurrerago hasiko dira. Jakinaraziko dugu. ■ **Unai Mantero**.

Gazte Festak 2014

Orioko herriari:

Laster beteko dira bost urte lehen aldiz Gazte Festak antolatu genituenetik. Ugariak dira urte hauetan zehar Gazte Festen inguruan gertatu diren eta oriotar gazte askoren memorian geratuko diren oroitzapenak.

Hasiera batean, OKK gazte asanbladak hartu zuen antolamendu guztiaren ardura. Ikusirik festak parte hartze handia izan zuela, parte hartze hori antolamendura bideratzeko ahaleginak egin ziren, antolamendu bilera irekia deituz. Erantzun positiboa izan zuen, eta guk erantzun hori handitzeko esperantza izan arren, denboraren poderioz kontrakoa gertatu da. Hori horrela, lehengo urtean jada planteatu genuen Gazte Festak egin ala ez, baina azkenean, nahiko bilera deialdi mehatxagarriak egin ostean, lortu genuen nolabait jende talde urri baten parte hartzea.

Ikusita jendearen interesa festa eguneretara mugatzen dela, honek dakarren ardura alde batera utzirik, Etxeluze gazetxearen izenean aurtengo Gazte Festak ez ditugula antolatuko adierazten di-

Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARAra bidal daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo gure lokalera eskura ekarri (Kultur Etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizena-ekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

Okerrak zuzentzen

Aurreko KARKARAN, 340an, kirolarekin lotutako bi hanka-sartze egin genituen. Lehendabizikoan 9. orrialdean, Jon Azkuek Espainiako selekzioarekin jokaturako txapelketa Europakoa zela esan genuen, eta ez zen horrela izan; Munduko Txapelketa jokatu zuen Azkuek. Bigarrean, erreportajearen, Kontxan izandako entrenatzaile oriotarrak aipatu genituen, eta Portugaleteko entrenatzailea, Joxean Olaskoaga Aizperro aipatzea ahaztu zitzaigun. Barka diezagutela bieki!

zuegu. Festa hauek indar galtze handi bat ekartzen digute, eta gure indarrak Etxeluzeri eskaini behar dizkiogula iruditzen zaigu, orain inoiz baino gehiago.

Besterik gabe, gogorarazten dizuegu Etxeluzeren ateak irekita dituzuela. Ia horrela ardi beltz gehiago sortzen ditugun eta PlayStation, lokal eta abarrez gain Orioko gazteak elkarrekin gehiago erlazionatzen garen. ■ **Etxeluzegaztetxea**.

Orioko udaltzainei

Ez da denbora asko Iturbide kalearen hasieran, *Patxierrekondo*-eneko parean, autoentzako aparkaleku bat kendu eta motoentzako aparkalekua egin zenetik.

Pelotari kaleko eta hor inguruko beste auto-gidari asko haserretu egin zen, autoentzako lehen ere toki gutxi zutela eta orain plaza bat gutxiago izango dutelako. Oinezkook, berriz, pozik egoteko motiboak genituen. Eusko Gudari kalerako Pelotari kalerako bidean zeuden motoak kendu, eta balkoiaren babesean lasai ibiliko ginelako euria egiten zuenean.

Bada ez; ez da horrela izan. Motoen aparkalekua hutsik egoten da. Batzuetan moto bat egoten da, baina, gainontzean, aurretik zeuden tokian, aipatutako balkoiaren babesean, jarraitzen dute motoek.

Beraz, trafikoko arauak ez dakit nola izango diren, baina logikaren arauak aginduta, Orioko udaltzainei eskatu nahi diedana zera da: motoak bere aparkalekua erabili dezaten behartzea. Nik ez dakit zeintzuk diren jabeak, baina ziur nago zuek badakizuela edo jakin dezakezuela. Pelotari kaleko oinezkook, eskertuko dizuegu. ■ **Oinezko bat**

Aurtengo berrikuntzak:
Gym-jazz eta Zumba

karela
Orioko kiroldegia

Info+ 943 89 44 28

Lehen tunela txukundu eta gero, bigarrena azaroan

Arrantzale eta Eusko Gudari kaleak lotzen dituzten tuneletako baten txukunketa lanak bukatu dituzte. Argitasuna eta irisgarritasuna asko hobetu dira konpontzeko premia zuen tokian

Inbertsio handirik ez baina beharrezkoak iruditzen zitzaizkien inbertsio txikiak egingo zituela jakinarazi zuen Orioko Udalak martxoaren 7an aurrekontuak onartu eta gero.

Gauzak horrela, udan hainbat aldaketa egin dituzte Orioko kaleetan. Horietan nabarmenena Arrantzale kalea eta Eusko Gudari kalea lotzen dituen tuneleko –Gaboneko tuneleko– txukuntze lanak izan dira. Oraindik pintatzea falta bada ere, bi helbururekin egin dituzte lanak: argiztapena eta irisgarritasuna hobetzea.

Merkatariekin elkarlanean egin duten lana izan da, eta haiek aukeratu dute tunelean jarri den lurra hori izatea. Horrez gainera, argiteriak hiru programa izango dituela jakinarazi digute Udaleko bulego teknikitik: egunekoa, iluntzekoa eta gauekoa. Iluntzean argi guztiak piztu egingo dira eta gainontzekoetan energia aurrezteko programak erabiliko dira.

Lehendabiziko tuneleko lanak ia bukatuta, azaroan ekingo diote bigarren tunela txukuntzeari. Lanak Murgil erakuntza enpresak egin ditu eta bi tunelak txukuntzea 66.454 euro kostatuko da. Eusko Jaurlaritzako merkataritza sailak diruz lagundu ditu lan horiek.

Oinezkoentzat gune berria

Abeslari kalearen zati bati, Arrantzale kaletik kiroldegira doanari, oinezkoentzako izaera eman dio Udalak; Ikastolara eta kiroldegirako pasaera izanik, oinezko asko ibiltzen baita. Hala, Arantzazuko Andra Mari auzunera doazenek soilik gidatuko dute tarte horretan.



Inbertsio txikiak egiten ari da Orioko Udala herriko kale eta ekipamenduak hobetzeko. KARKARA

Japoniako telebistakoak izan ziren Orion, bale arrantzak erakarrita

Hiroshi Ooshita zuzendariak hango telebista kate publikorako Euskal Herriko kulturaren gainean egingo duen dokumentalaren zati baterako irudi bila etorri ziren gurera



Bi euskal ohitura uztartu zituen Ooshitak: elkarte gastronomikoak eta bale-arrantza. KARKARA

Aurreko ostiralean, irailaren 13an, Japoniako telebista publikoko lan-talde bat etorri zen Oriora. Donostiako untzi-museoan emandako informazioari esker, gurean balearen arrantzari buruzko datuak eta irudiak jasotzera etorri ziren.

Hiru ataletan banatutako dokumentala osatu nahi dute japoniarrek Euskal Herriko kulturaren eta usadioen gainean.

Hala, udaletxean dagoen beiratea ikustera joan ziren lehenbizi. Pleno aretoan dagoen lana udaletxe berriarekin batera egin zuten eta, Untzi Museoan hala esanda, interesa sortu zitzaion. Xanti Zaldua izan zuten herriari gidari.

Baina, herritarrekin hartu-emanean, Balea elkarteari buruzko informazioa eman zieten herritarrek. Jakinmina piztu zitzaion eta bertara joan ziren ea zer nolako informazioa eskuratu zezaketen ikustera. Tokia gustatuta, elkarteko koadro handia eta 1901ean ehizatu zen balearen argazkia hartu zituzten iruditan.

Horrez gainera, Egunsenti abesbatzaren kolaborazioa izan zuten Japoniako telebistakoek. Elkartera joan ziren eta garai batean bezala hasi ziren kantari, mahaiaren jira. Kantu pare eskaini zizkieten japoniarrei Egunsentikoek, tartean, nola ez, balearen bertsoak.

Biastez jardun dira euskal lurretan Hiroshi Ooshitak zuzendutako dokumentala grabatzen, eta, esaterako, Oriotik Berneora joan ziren hurrengo egunean estropadetara. Behin informazio guztia bilduta, Japoniara joango dira berriz ere bideoaren muntaia egitera. Emaizta laster esku artean izatea espero dute, Oriora ere bidaltzeko.

LABUR

Ingurumena

Ziklomotorren azterketa teknikoa

Ziklomotorrei eta motozikletei azterketa teknikoa egiteko aukera izango da Orion datorren urriaren 4an, ostiralarekin. Oraindik izena eman gabe dagoenak, 943 626 300 zenbakira deitu behar du hitzordua hartzeko. Ibilgailua ekartzen duena jabea ez izatekotan, haren datu hauek eraman beharko dira: NAN-aren zenbakia eta egungo helbidea. Azterketa egiteak 26,89 euro balioko du.

Kultura

Lehen maketa kalean du Uhatsek

Uhats taldeak bere lehen maketa argitaratu du. Uhats izenarekin ibilbide berriari ekin dio Olaxka taldea zenak, kantu berriak sortuz; horietako bi Julen Alonsok konposatutakoak dira, eta hitzak Goiuri Unanuek, Iñaki Lizarralde eta Olatz Zugastik idatziak. Taldekideak Julen Alonso, Eneritz Aulestia, Paul Beitia, Mirene Elizondo, Iñaki Lizarralde, Intza Unanue eta Iker Urdangarin dira. Maketa Ontza paperdendan, Iturain estankotan, Salatxo tabernan eta Kanpineko Boga Boga tabernan jarri dute salgai 10 eurotan.

Karkara

Publizista berria dugu

Publizitateari hauspoa eman eta orain arteko bezeroak hobeto mimatzeko intentziaz, KARKARAK publizista berria izango du hemendik aurrera. Herrian ezaguna den aurpegia izango dugu guri laguntzen: Iban Egiguren. Publizitate berria kontratatu, datuak eguneratu, diseinua berritu edo publizitatearen gaineko beste edozein zalantza izanez gero, harekin jarri beharko da kontaktuan hemendik aurrera 688 859 682 zenbakira hots eginda edo karkara@karkara.com helbide elektronikora idatzita.



Kanpineko bezeroak oso pozik geratu dira tabernan egindako lanekin eta bertako zerbitzu eta ordutegiekin. KARKARA

Kanpina beteta egon da bungalowak martxan jarri diren lehen udaran

Uztailaren lehen jarri zen martxan Orioko Udal Kanpineko bungalow zerbitzua. Uztailean egokitzapen fasean baziren ere, lehendabiziko egunetik harrera ona izan du bezeroen artean zerbitzu berriak

Urte berezia izan da 2013a Orioko turismoarentzat. Kanpinean berrikuntza nabarmenak egiten ari zirela hasi zen turismo denboraldia, udaberrian. Hori dela eta, lanek baldintzatu egin zuten denboraldiaren lehen zatia, nahiz eta bezeroei ez zien eragin bereziki.

Eguraldiak ez zuen batere lagundu martxotik ekainera, ezta asteburuetan ere. Dena dela, Orioko kanpineko sarre-kopurua aurreko urtekoen antzekoa izan zen, nahiz eta egonaldiak ohikoak

baino laburragoak izan. Batez ere Britainia Handitik eta Holandatik etorritako jubilatuak izan ziren gurean.

Uztailetik aurrera, ordea, bestelakoa izan zen egoera. Eguraldia lagun, uztaila eta abuztuan kanpina guztiz beteta izan zen, abuztuko azken asteetan salbu -azken urteetako ohiturari jarraituz-. Beste urteetan izan den adina bisitari ibili da; atzeritar gutxiago, baina gaur egun 50 partzela bungalowentzat direla kontuan hartu behar da.

Bungalowen balorazioa oso positiboa izan da. Uztailean egokitzapen fasean baziren ere, %95 inguru beteta izan dira udako bi hilabeteetan. Irailean, berriz, udaberriko giro berdintsua izan dute kanpinean.

Jarduerak behera

Krisiaren eraginak jota, udarako antolatzen diren turismo jarduerak nabarmen egin dute behera aurretik; duela 6-7 urte baino %50 inguru gutxiago hartu du parte. Txu-txuaren erabilerak ere jaitziera txikia izan du. Suak ikusteko irteerak, urtero bezala, arrakastatsua izan dira eta Turismo Bulegotik igaro den jende kopurua ia zoko bertsa izan da.

AMAIA ESTANKOAK

Tabakoak
Prensa

Amara Larrinaga - JA. 403 702 902
Bilbao, Euzkadi, 23 - 48100
(943) 417 2404
www.amaiaestankos.com

izarra
GIZON MODA

Balea, 1 tel. 943 13 39 30 ORIO
www.izarra@hotmail.com

obrak proiektuak enformak erehabilitazioak txostenak lizentziak

XS arkitektura

borja agirresarobe lopetegi 635 73 17 22

Urte askotako lanaren aitortza Jesus Antonio Makazaga, *Makatzari*

Aginte makilaz gainera partidako garaipena ere eskaini nahi izan zioten arren, Orioko Futbol Taldeak ezin izan zuen ligako lehen partidaren punturik lortu Amaikak Bat taldearen kontrako lehiari



Arkaitz Agirrearen eskutik jaso zuen aginte makila Jesus Antonio Makazaga *Makatzak*. KARKARA

Omenaldi xumea baina esanahi handikoa jaso zuten aurreko larunbatean 2013ko denboraldia bukatu arte hainbat urtez zuzendaritza batzordeko kide izan direnek.

Orioko Futbol Taldeak eta Amaikak Bat Debako taldeak elkarren aurka jokatu zuten partidaren aurretik, bi taldeek eta Orioko Futbol taldeko beste talde batzuetako ordezkariak pasabidea egin zieten Jesus Antonio Makazaga *Makatzari* eta alboan hainbat urtetan zuzendaritza batzordeko kide izan direnei.

Pasabidearen bukaeran Arkaitz Agirre zegoen, gaur egun Orioko Futbol Taldeko presidentea. Hark eman zion oroi-garri moduan aginte makila Makazagari, eta klubeko hainbat jokalarik txapela bana jarri zieten zuzendaritza batzordeko lanetan urte askotan lanean jardun duten juntakideei.

Ligako estreinakoa

Omenaldi xume horren atzetik denboraldiko lehen partida ofiziala jokatu zuten Erregional Preferente mailako gizon-zkoek.

Lehen minutuetan joko aldrebesa izan zen bi taldeen aldetik, baina 20. minuturako lehen gola sartu zuen Amaikak bat taldeak. Gero oriotarren erreakzioa etorri zen eta beren joko hobea izan zen lehen zatia bukatu zen artean. Dena dela, atsedendalditik bueltan, berriz ere 20 minutu pasata, 65. minutuan, behin betiko 0-2koa sartu zuten Amaikak Bateko mutilek. Ez dira nahi zuten bezala hasi oriotarrak.

Datorren etxeko partida urriaren 5ean izango da Soraluzeren kontra.

LABUR

Arrauna

Beste urtebetetz KAE-1 ligan

Irailaren 15ean bukatu zen aurtengo arraun denboraldia. TKE ligara igotzeko lehiari, Oriok ere bazuen interes berezia. Izan ere, hango emaitzen arabera jarraituko zuen bigarren txalupak KAE-1 ligan. Azkenean, gertatu zenarekin Oriok beste urtebetetz bigarren mailan izango da, eta KAE-2 ligako play-offa irabazi zuen Hondarribia B mailaz igo gabe geratuko da.

Sofbola

OBBkoak Euskal Selektzioarekin

Euskal Selektzioarekin Kuban izan ziren OBBko 8 jokalarik eta entrenatzailea Irailaren hasieran. Taldearen bizkar hezurra osatu zuten oriotarrek bertan, eta nahiz eta partida guztiak galdu -Kuba sofboleko potentzia da mundu mailan- gustura itzuli ziren egindako lanarekin. Horrez gainera jokalariek, beren inizatibaz, Kubako haurren ospitale batean beren poltsikotik erositako jostailuak banatu zituzten. Hango errendimendu altuko zentro bat ere bisitatu zuten, kirolarien lan egiteko modua bertatik bertara ezagutzeko.

Idi probak

Olden txapeldun lau dematan

Udako probetan bikain ibili da Iñaki Olden oriotarra. Lau dema jokatu eta lauak irabazi ditu. Lehendabizikoa Billelan -Mungia- irabazi zuen beti ibili izan duen idi parearekin. Gerora Azkoitiko Andra Mari jaietako, Elgoibarko -abuztu bukaeran- eta Elorrioko -irailaren 9an- probak ere irabazi ditu. Elorrioren eta Azkoitian idi gazte bat plazaratu zuen lehenengo, aurreko pareko idi batekin uztartuta. Gainera, uda honetan berak egindako uztarriak probatu ditu. Denboraldi bukaerarako gogotsu da Olden.

“Olatuarekin gozatzeko momentu hori ezin da hitzekin azaldu”

Unai Zubizarreta

Bodyboardlaria

Olatua ez dator behin ere bakarrik esateraren arabera eta berri txarrak ekarri ohi ditu gehienetan. Unai Zubizarreta bodyboardlariarentzat gozamina eta sariak ekartzen dituzte olatuek eta hori izan dugu hizpide.

IRATI AGIRREAZALDEGI

Surfean aritzen zen lehenengo, baina orain dela urte eta erdi hasi zen *kortxo*aren gainean serio. Euskal Selektzioarekin Portugalen izan da udan. Urriaren 8tik 12rabitartean Espainiako Txapelketa jokatu du Ferrolen eta buru-belarri ari da ahal duen gehienetan uretan sartu eta entrenatzen.

Surfa ezagunagoa da jendearentzat. Zu nolatan ari zara bodyboardean?

Orioko olatua egokiagoa da bodyboarderako eta elitiko, jendea ere etortzen da; esaterako, Alex Uranga, munduko hamargarrena. Oso indartsua da eta barra txikiak egiten duen erreboteak bodyboardari abiadura handia ematen dienez, potentzia horrekin salto eta maniobra handiagoak egiteko aukera dago. Barra handiak, ordea, itsaso gutxiago sartzea eragiten du eta nahikoa markatu behar izaten du olatu politak egoteko.

Zer dauka zuretzat bodyboardak hainbeste erakartzeko?

Olatuarekin gozatzeko momentu hori ezin da hitzekin azaldu, oso polita da. Txapelketetan zenbat eta maniobra zailagoak egin puntu gehiago lortzen dira eta gehienetan ARSa –*Air-Roll-Spin*– egiten ahalegintzen gara, nahiz eta zailagoak ere badauden. *Rolloak*, 360°ko birak eta bestelako maniobrak egiten ditugu, baina txanda nola doan ikusita behar bada gehiago arriskatzen gara.

Zer behar du bodyboardlari on batek?

Burua, txapelketetan nola jokatu pentsatzeko, eta teknika. Horretarako entrenatu egin behar da. Alex Odriozola, 18 urtez azpiko Europako txapelduna Zarauzko entrenatzaile batekin aritzen da tabatzutan Oriora etortzen dira, beraz, harekin hastea pentsatu nuen.

Saskibaloian ere aritzen naiz eta orain arte bat uztekotan bodyboarda utziko



KARKARA

nukeen, baina emaitzak ikusita ahal duan bitartean bietan jarraituko dut.

Denbora gutxi aritu arren, hainbat sari irabazi dituzu bodyboardean.

Euskal zirkuituan, lehenengo aldian, ez nuen zorte onik izan, baina gero, ezustean, Euskal Selektzioarekin Portugalera joateko deitu zidaten eta han hirugarren izan nintzen; ondoren, zirkuituko bigarren proban, bosgarren –18 urtekoen aurka aritu nintzen–. Iraileko bigarren asteburuan Lienresen proba bat izan nuen Espainiako txapelketarako sailkatzeko eta aurrena gelditu nintzen. Asteburu honetan ere Bakion Euskal Herriko txapelketa daukat. Hain denbora gutxian emaitza horiek lortzeak pozez gain jarraitzeko gogo ere ematen du.

“Barra txikiak egiten duen erreboteak bodyboardari abiadura handia ematen dio eta potentzia horrekin salto eta maniobra handiagoak egiteko aukera dago”

“Metro eta erdiko olatuez gain, haizerik ez izatea da onena, ura liso-liso egon eta abiadura errazteko”

Gipuzkoako txapeldun izan zinen. Maila ona al dago Gipuzkoan?

Hemen ongi moldatzen gara, baina kanariarrek maila askoz hobea daukate, hango olatua hobea baita. Gainontzean, Galiziaokokin eta nahiko paretsu gabiltza. Orion ere bada ni baino gazteago bat, Mikel Atxega, ongi ibiltzen dena. Hura ere bere mailan bigarren izan da. Orion talde bat badugu eta denbora asko pasatzen dugu uretan, beraz, mailak gora egingo duela espero dut.

Txapelketan zerk du garrantzia handiagoa itsasoaren egoerak ala aurkariak?

Hasieran itsasoak, bakoitzak bere mugak baitauzka –nire kasuan metro eta erdi, bi metro–. Orain ari gara itsasoa sartzen bada beldur horiek kentzeko ahaleginean. Metro eta erdiko olatuek, maniobra ikusgarrietarako aukera ematen dute eta haizerik ez izatea da onena, ura liso-liso egon eta abiadura errazteko.

Hondartzara iritsita aurkarien puntuei eta mugimenduei erreparatzen diegu. Lehian aurka egin arren, giro polita sortzen da gure artean.

Ikerketa baten arabera Altxerriko margoak dira Europako zaharrenak

Ikerketaren emaitzek duela 39.000 urte egindako margoak daudela azaldu arren, Aranzadi Zientzia Elkartek emaitza horiekin zuhurtziaz jokatzeko gomendioa egin du

Burgosko, Kantabriako eta Tolosako –Frantzia– unibertsitateetako hainbat ikerlarik César González eta Aitor Ruiz zuzendaritzapean egindako ikerketan, okre kolorez margotutako bisonte handia –lau metro luzeran eta bi altueran– duela 39.000 urte egindako delako argitu dute orain arte gutxi ezagutzen zen Altxerriko galerian.

Izan ere bi galeria garrantzitsu ditu Altxerriko, printzipala da bata eta gainetik pasatzen dena bigarrena, Altxerri B izenez ezagutzen dena. Duela bi urte hasi ziren ikerketa lanetan eta hirurogeigarren hamarkadan Aita Barandiaranek aurkitutako bisonte datatu dute orain. Baita felido baten buruaren eta hartza baten pintura berriak aurkitu ere.

Data ezartzeko hainbat teknika erabili behar izan dituzte; izan ere zuzenean datatzea ezinezkoa zen, margolanak pigmentu inorganikoz eginak daudelako.

Hala, konparaketa egiteko kronologikoki gertuen dauden beste haitzuloetako margoak erabili dituzte, horretarako aurretik margoen azpian zeuden hezurren datak beste lagin batzuen analisiek inderatuta.

Karbono-14 teknika erabilita –metodo sinesgarria eta kontrastatua–, datatu dituzte Altxerriko pinturarik zaharrenak. Aitor Ruizek, dena dela, onartu du 1.500 urte lehenagoko datazio bat egin dutela Castilloko koban –Kantabria–, uranio-torio teknika erabilita. Hala ere, metodoa guztiz esperimental eta polemikoa denez, zientzialari batzuk datazioaren sinesgarritasuna zalantzan jarri dute.

Emaitzak aurten jakin badira ere, ikerketa 2011n egin zuten César González eta Aitor Ruiz Kantabriako Unibertsitateko zientzialariek, Diego Garate Tolosako Unibertsitateko azterlan paleolitikoko


adituak eta Eneko Iriarte Burgosko Unibertsitateko geoarkeologian adituak. Finantziarioa, berriz, Aranzadi Zientzia Elkarteen eskutik joan zen.

Aranzadi zuhur

Aranzadi pozik agertu da Aitor Ruiz eta César González taldearen emaitzak *Journal of Human Evolution* aldizkarian publikatu dituztelako, baina emaitza horiekin zuhurtziaz jokatu beharra dagoela gogorarazi du: *adituen artean hainbat teoria daude eta batzuek zalantzan jarritzen dute Altxerriko topatutakoak Europako labar-pintura zaharrenak direla*. Hala ere, elkartek margo horien eta Altxerriko aztarnategiaren ezagutza bultzatzen jarraituko duela esan du.

Aranzadiko bazkide dira Ruiz, González, Garate eta Iriarte, eta elkartetik adierazi dutenez, *ikerketari esker Altxerriko pinturen garrantziak pisu handiagoa hartuko du Europako labar-arteen testuinguruan*.

Aurkikuntza garrantzitsua ez bairik gabe, giltzapean babestuta dagoen gure altxorren gainean eginikoa.



Aita Barandiaranek aurkitu zuen lehenengoz Altxerri B galeriako bisonte handia. EUROPA PRESS



Lore Berasaluze egongo da Kultur Etxean Aiako informazioa jasotzen. KARKARA

Astelehen goizetan Aiako Kultur Etxean izango da KARKARA

Herriko berriak jasotzea eta aiarrekin harremanetan jartzea da helburua. 09:30etik 12:00etara egongo gara Kultur Etxean eta herritarrei etortzeko gonbita egin nahi diegu

Hemeretzi urte luze dira KARKARA Aiarra eta Aia KARKARARA zabaldu zirela. Urte hauetan guztietan Aiako berri jasotzen aritu gara aldizkariko orrietan eta azken urteotan baita webgunean ere: albisteak, argazkiak, elkarrizketak, iritzi artikulak...

Urte mordo hauetan lankide izan dugun Pat Cowiek lan handia egin du jardun horretan, Aian egositakoa Orioko erredakziora ekarriz. Oraindik ere jasotzen dugu bere laguntza Aiako berri ematen baitigu noizean behin.

Orain baina, KARKARAREN eta aiarren arteko harremana sendotu, estutu, egin nahi dugu. Bien artean egon zitekeen zuloa betetzera gatoz. Aiako albisteak gertutik hartu nahi ditugu: herritarrak ezagutu, kexa eta iradokizunak jaso, aiarren

ahotsari oihartzun handiagoa eman, aurrez aurreko harremana lehenetsi...

Bide batez, KARKARAREN belarri izan nahi duten horiek, gaurkotasunean jantzita dauden herritar horiek, gerturatzerara gonbidatu nahi ditugu. Albisteak, bitxikeriak, argazki mundialak, iritziak... denon artean, komunitatean, osatzea dugu helburu.

Ordutegia

Horretarako, datorren irailaren 30etik aurrera, astelehenero-astelehenero, Aiako kultur etxean izango da KARKARAKO zuzendari Lore Berasaluze, 09:30etik 12:00ak arte.

Esku zabalik hartuko ditugu aiar guzti-guztiak eta kultur etxera lasai etortzeko dei egin nahi diegu.

LABUR

Ikastaroak

Kurtso berria hastear

Esku-lanen ikastaroak izango dira aukean aurten ere. Astearte eta ostegunetan izango dira eskolak, 15:00etatik 18:00etara. Udaletxean eman behar da izena urriaren 1erako 50 euro sartu izanaren ordainagiria aurkeztuta. Kontu korrontea: 2095 5027 23 1061265954 -Kutxa-.

Festak

Sanmigelak Laurgainen

Irailaren 27an hasita ospatuko dituzte aurtengo sanmigelak Laurgainen. Auzo afaria egingo dute jaiei hasiera emateko. Atsedean elkartean bilduko dira aurretik afaritarako txartela erosi duten auzotarrak. Afalostean Izer eta Alabierrekin erromeria izango dute goizaldera arte. Irailaren 28an, larunbatarekin, mus txapelketa izango da arratsaldeko 16:30ean hasita. Orduerdi lehenago eman behar da izena, bikoteko 20 euro ordainduta, eta sari bikainak izango dira: txapela, garaikurra, arkumea, mariskada eta bi xanpain botila bikote irabazlearentzat; garaikurra, lau untxi, mariskada eta bi xanpain botila bigarrenentzat; lau txuleta eta bi xanpain botila hirugarren tokian geratzen direnentzat; eta hiru kilo kostila eta bi ardo botila laugarrenentzat. Gaueko 23:00etan hasi eta goizaldera arte, berriz, Itsaso eta Irupe Elizagoien trikitilariekin erromeria izango da. Irailaren 29an, San Migel egunean, igandean, 10:30ean meza nagusia izango da. Atzetik hamaiketako egingo dute eta, bukatzeko, herri-kirol erakustaldia Landarbidetara eta lagunekin: harri-jasotzea eta aizkora. Guztia trikitilarien doinuekin alaituta.

Udazkena

Tikitán oso gustukoa nuen urtaroa zen udazkena, nahiz eta nire barnean tristura puntu bat sentitzen nuen; udaren amaiera, eskolara buelta, eguraldi aldaketa eta egunaren mozketa...

Nostalgiaz gogoratzen ditut hainbat momentu, arratsalde luze haietan base-rrian, amarekin eta senideekin, sukaldean, suaren epeltasunean, denok elkarrekin igarotzen genituen uneak; amak afora prestatzen zuen bitartean, gu han ibiltzen ginen mahai inguruan hizketan, jolasean...

Udazkena oso urtaro berezia da, basoek mila kolorez apaintzen dituzte zuhaitzetatik hegan bidaiatzera doazen hostoek, musika eta kantuz bilduta haizea-

rekin egiten dituzten dantzaldietan hara eta hona jira-biraka jolasean. Haizea da urtaro honetako protagonista nagusienetakoa; gure herrian zenbait garaitan sekulako mugimenduak ibili ohi ditu; xarma berezia dauka niretzat; haize kolpe handi horiek jotzen dituenean seme-ari haizea pozik dabilela esan ohi diot hortik zehar kantari eta dantzan.

Udazkena oso urtaro berezia da, basoak mila kolorez apaintzen dituzte zuhaitzetatik hegan bidaiatzera doazen hostoek

Eguraldiari dagokionez, lehengoan semeak esaten zigun: *aítta, ama eguraldi txarra dago eee?* Euria ari zuenez...

Orduan azaldu genion euria ere beharrezkoa dela, bestela ez liriatekeela gure zelaiak horren berde eta eder egongo... -pentsatzen jartzen zara ze hitz egiteko ohitura ditugun, eta lau urteko tikiak nola ikasi duen, hainbeste aldiz entzun ondoren, hotza, euria, lanbroa ari duenean eguraldi txarra dela eta eguzkia eta beroa dagoenean eguraldi ona dela-.

Louise L. Hay-ren gogoeta bat gai honen inguruan: *Bakean nago naturako elementuekin. Ez dago eguraldi on ez eguraldi txarrik: eguraldia bakarrik dago eta nere erreakzio indibiduala honen aurrean.*



Txokoak eta jendea
1995eko dantzari gazteak

Bai, denontzat pasatzen dira urteak, baita argazkikoentzat ere. Hemen ditugu herriko jaietan Saioa Lertxundi, Olatz Zuloaga, Irati Egurza, Gorka Zuloaga, Ziratz Aldanondo eta Imanol Sarasola, aspertuta, beren dantzaldia egin ondoren. Ziur korrika hasi zirela buruhandiak irten zirenean!

» ORIOKO BASERRIAK



23. Errota eta sagardotegia

Oriako erriberetako soro izandako zelaien aurrean, Orio eta Usurbil arteko errepidearen bazterrean dago Mariaerrotazar. Izenak adierazten duen bezala, itsasaldien gora-beherez baliatzen zen errotrariak mugitzeko eta mareak gora egiten zuenean Ori a bairra sartzen zen ura biltzeko presa handia zeukan. Presaren horma da gaur egun mantentzen den Mariaerrotaren aztarna bakarra. 1705

eta 1707 urteen artean eraiki zuen Udalak eta bi harriko errotrari hirugarrena gehitu zioten 1709an. Erreketako ohiko errotek baino matxura gehiago izan arren, errentagarria zen Udalarentzat ekoizpen gaitasun handiagoa zuelako. Ondorioz, maizterrak Udalarri ordaintzen zion errenta Txankagoikoak edo Txankabekoak ordaintzen zutena baino bost aldiz handiagoa zen.

Gerrateek eragindako zorrak ordaintzeko 1813an saldu egin zuten Mariaerrotta eta jabe berriak presa handia lehortu zuen han soro eta zelaia sortuz.

Marea Errota zena erre zenean, Marrotazar izenez ezagutzen den baserria eraiki zuten. Eraikuntzak eragindako zorreatatik-edo baserriaren jabeak

maizter bihurtu ziren eta Infantadoko dukea egin zen jabe. Baina 1990ean ondorengoek baserria berriz erosi zuten.

Mareaerrotazar baserriko bizilagunek beti jardun dute baserri lanetan eta gaur egun Orion baserri bizimoduari eusten dion baserrietako bat da. Esnetako 90-100 behi buru inguru dituzte eta belar saila behien jatenetarako erabiltzen dute. Hala ere, baserriko lana nahikoa ez eta etxetik kanpo ere aritzen dira lanean.

Garai batean sagardotegia zuten, baina gaur egun etxerako sagardoa egiten dute. Sagastiak mantendu dituzte eta etxeko tolaireak martxan jarraitzen du.

ARGAZKIA ETA INFORMAZIOA: ZEHAZTEN |

MIRANDA
ARROTZ LANAK

Tarima, ate, leiho, eskaifera...
behar diren arrotz lanak
egingo dizkizugu

Urdaneta bidea, 1 -669 42 32 70- ZARAUTZ

PERTSIANAK
AKO MAZ

Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel: 943 329 01 Mugikorra 600 70 52 27

URAITZ
Lurrindegia
jantzi sagarriak

Endalaiz Tfn: 943 83 18 97

URANGA
burdindegia
Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5



Fleury-A Lama: laguntasun bidea bizikletaz



Bizikletaz egin dituzte udan Ainara Balenciagak eta Iñaki Landak 1.800 kilometro. Orion bizi diren arrasatear eta gasteiztar hauen bidaiak ez da udako oporretako ibilaldi arrunta izan, ordea. **Fleury eta A Lamako kartzelen artean** egin dute bidea preso dauden bi lagun bisitatzeko.

TESTUA: IRATI AGIRREAZALDEGI
ARGAZKIAK: IÑAKI LANDA ETA
AINARA BALENCIAGA.

Bideak, errepideak, gal-tzadak, gurpideak, xenderak, abelbideak, estartak.../Nondik eta nora doaz hain mutu?/Batzutan hartu egin ditugu. Gehienetan bideek haritzen gaituzte gu./Denonak dira? Edozeinenak dira? Hala ez dira inorenak? Bide laburrik ez da./Beste batzuk luzeagoak dira. Joseba Sarrionandiaren hitzek azaltzen dute Arrasateko Ainara Balenciaga eta Gasteizko Iñaki Landaren Xenderak proiektua.

Xenderak, sorkuntza, kazetaritza eta abentura uztartzen dituen proiektua da; haserrea eta ezinegona kanporatzeko modua hein handi batean. Zerk sortzen du, ordea, oriotartutako bi lagun hauen haserre hori? Dispersioak 1.700 bat kilometrorra sakabanatu ditu, Asier Bengoa eta Iker Zubia, Iñaki Landaren bi lagun; Fleuryko espetxean, Parisen, dago bat eta A Lamakoan, Galizian, bestea. Amorrutik kanporatzeko Fleurytik A Lamara bizikletaz joatea erabaki zuten Balenciagak eta Landak eta horren harira sortu zuten Xenderak. Udarakoplanik ez geneukan arren, jakin bagenekien bisita egin behar genituela espetxetara eta bizikletan ere ibili nahi genuenez, aukera bat izan zitekeen batetik bestera bizikle-

taz joatea eta animatu egin ginen eta baita lortu ere, dio Ainara Balenciagak.

Landak laguntasunaren bidea deitu dio Fleury eta A Lamako espetheen artean egindakoari. Bidaiari bi alderdi ikusi dizkio, batetik politikoa, espetxetarako beren bisitak dispersioaren isla direlako eta euskaldunek urrutiko karteletara egiten dituzten bidaiako kontuak bertsuak direlako. Bide mediatikoa ere izan du. *Bageneukan bidaiak, baina jendeak pentsa ez dezan bidaiak hutsa izan dela, gure gertaerak, genituen baliabideekin –grabatu, argazkien bidez, testuekin– jaso eta blog batean kontatu ditugu.* Laguntasunaren bidean barrena aurkitutako lagunak izan dira istorio horien protagonista.



Ezinbesteko lagunak

Antigua Biken bizikletak prestatu eta Oriotik abiatu ziren Iñaki eta Ainara bidai luzea egitera. Nolatan Oriotik? Hemen bizi direlako. Iñakik, gasteiztarra den arren, Donostian ikasi zuen eta baita lan egin ere, baina ez zuen gustuko, *as-pergarrria da niretzat. Kostako herri bat nahi nuen polita eta jatorra. Hasieran Parisi San Pedrorra joatekoa nintzen eta azkenean hemen bukatu nuen.* Lau urte dira Oriora etorri zela eta Ainara orain dela bi urte iritsi zen Arrasatetik.

Oriotik Hendaiara eta handik Parisera trenez. Parisen askotan izan direnez, oso ondo ezagutzen dute eta lagunak ere egin dituzte. Euskal Herriaren Lagunak taldekoek presoen senide eta lagunei mesede asko egiten dizkietela esan digu Landak eta haiek *Ezinbestekoak* izendatu dituzte. Egia esan, bidai honetan lehen lagun izan dituzte talde horretako Juan Salazar eta haren emazte Lili. Fresnesen lo egin nahi zuten, mojen etxean, bizikletak uzteko aukera dagoelako. Baina Etxeratekoek akats bat izan zuten eta La Santén hartu zieten tokia eta han ezin da bizikletarik sartu eta mojak oso zorrotzak dira. Juan Salazarrekin kontaktuan jarri, gure bila trenera etorri eta bere autoari segika Parisen barrena, bizikletan, alforjekin bere etxera eraman gintuen lotara, kontatu du Ainarak irribarra ahotan.

Lucio Urtubia anarkistarekin ere izan ziren eta Arnaldo Otegiaren inguruko mezua grabatu ziotela ere jakinarazi digute Iñakik eta Ainarak.

Asier Bengoaren bisita Fleury-n

Bisita izan zuen hurrengo egunean Iñakik, Fleury-n. Oriorekin parekatu du Fleury, bizilagun kopuruan, 5.000 preso baitaude eta ondoan, emakumezkoenengan, 3.000. Ia bi orduko bisita izan zen eta elkarren arteko kristalik gabekoa, gainera. Irteterakoan bihar arte esan zion, hurrengo egunean 40 minutuko beste bisita bat izan baitzuen. Atxilotu zutenetik, bere lagun Asier lau urtez ikusi gabe egon



“Udarako planik ez geneukan arren, jakin bagenekien bi bisita egin behar genituela espetxeetara eta bizikletan ere ibili nahi genuenez, aukera bat izan zitekeen batetik bestera bizikletaz joatea”

“Parisen Levertrek ez dizkigu baimenak erraz ematen. Lau urtez, ama bakarrik joan zitekeen bisitara. Han elkartzan ziren senideek pentsatzen zuten Asierrek ez zuela lagunik. Guri galdetu ziguten: *zergatik egon zarete hainbeste denboran etorri gabe?*”

“Frantzia oso ongi antolatuta dago bizikletan ibiltzeko, kanalen ondotik baita errepideetatik ere. Hainbeste bide dauzkaten auto asko ez dabil, beraz, eroso da bizikletaz ibiltzeko”

“Gogorra izan zen gu bizikletarekin batera eta bestera ibili eta gurekin zegoen iheslaria Euskal Herrira ezin igarota ikustea. Azkenean ikasteko bidea izan da. Gure herrian mugak ez daudela diote, baina horrek erakusten du mugak egon badaudela”

“Gu hemen bakean bizi gara, bai, baina oraindik urrutira joan behar gara lagunak eta senideak



zen Landa. *Parisen Levertrek ez dizkigu baimenak erraz ematen. Lau urtez, ama bakarrik joan zitekeen bisitara. Han elkartzan ziren senideek pentsatzen zuten Asierreke zuela lagunik. Guri galdetu ziguten: zergatik egon zarete hainbeste denboran etorri gabe?* Orain, behintzat, 12 senide eta lagun gaude zerrendan.

Ainara ez dute ezagutzen Iñakiren lagunek bisitari zerrenda mugatua dagoelako eta lagun-lagunak nahi dituztelako. Baina bera itxarongelan egoten da laguntzaile gisa joandako beste senide eta lagunekin bizipenak elkartrukatzuz.

Mojetxeetan lo

Espetxeeko laguna eta Paris hiriko txokoa bisitatu ondoren uztailaren 28an ateratu ziren Paristik. Wikiloketik jaitsitako ibilbideei jarraituz egin zuten pixkanaka aurrera. *Frantzia oso ongi antolatuta dago bizikletan ibiltzeko, kanalen ondotik baita errepideetatik ere. Hainbeste bide dauzkaten auto asko ez dabil, beraz, eroso da bizikletaz ibiltzeko*, dio Landak. Egonaldiak, berriz, Frantzian gehien bat kanpinetan egin dituzte, aterpetxeren bat edo beste ere bisitatu dute, baina nahiko garesti iruditu zaie dena. *Gu kostan ibili gara eta 30 euro lurrean lo egitearren bete-betetako kanpin zikinetan gehiegizkoa da*, dio Balenciagak.

Mojetxeetan ere hartu dute babes. Iñaki Landak azaldu du Frantziako legeraren arabera espetxe bakoitzarentzat moja etxe bat egon behar dela eta preso politikoaren zein sozialen senide eta lagunak hartzen dutela horietan ostatu. Ainararen esanetan, *Fresnesko mojetxean sekulako mugimendua eta giroa egoten da. Izugarritzko parkea du, egoteko lekua... Lasantekoa, ordea, moja etxe hutsa da eta mojak oso hotzak eta zelatan ibiltzen dira atzetik.*

Vivonneko oihuak

Bidean aurrera egin ahala hainbat espetxe bisitatu dituzte eta beste hainbaten aldamenetik pasatu dira: Fleury Poitiers, Fresnes, La Santé, Zaballa, Burgos,



Mansilla de las Mulas, Monterrosotik gertu eta A Lama. Baina bi lagun bisitatu beharreko espetxez gain beste batean baino ez ziren gelditu bidean: Poitiersko Vivonneko espetxean. Izan ere, A Lama-ko bisitarako egun zehatza zuten jarrita eta bestela lasaia joango baziren ere bisita egunerako ezinbestean iritsi behar zuten.

Sekulako espetxea da, ez Espainiar estatuko beste batzuk bezain hotza, nahiko berria, kolore aldetik besteak beste. Hala ere, lehen aldiz ikusi dut espetxe batean helikopteroen aurkako hesia. Alboetan ez ezik sare erako bat jarri diete goian, azaldu du Iñaki Landak. Han senide batzuekin elkartu ziren eta gorde beharreko istorioa bizi izan zuten. Bederatzigarren farolapera gerturatu eta barruan zeuden Izaskun Lesaka eta Maite Aranalde presoan oihuak entzun genituen eta senideek ere egin zieten oihu muino txiki batetik. Guretzat hori polita izan zen, dio Ainarak gertakizun hura hunkituta gogoratuz.

Zubi Internazionalaren erdian

Loiratik Garonne ibaira eta hortik, Landa guztiak zeharkatuz Adour ibaira. Hendaian egun batean gora eta behera ibili ziren bideoak grabatzen, baina egoera berezi bezain gogor bat bizi izan zutela kontatu digute. Iheslari batekin ari ginen grabaketak egiten eta berez Zubi Internazionaletik Irunera igaro daitekeen arren, hura erdiraino baino ez zen joaten, pauso bat bera ere gehiago ez zuen ematen. *Gogorra izan zen gu bizikletarekin batera eta bestera ibili eta bera Euskal Herrira ezin igarota ikustea. Azkenean ikasteko bidea izan da. Gure herrian mugak ez daudela diote, baina horrek erakusten du mugak egon badaudela.*

Ainararentzat ere muga txiki bat izan zen Euskal Herrira iristea. Izan ere, bizikletako posturak, kanpin dendan lo egin beharrak... bizkarreko mina eragin zion eta atsedean hartu behar izan zuen, gero, Ponferradan maitasunaren bidearekin bat egin bazuen ere.

Pedalei eraginez, A Lamatik gero eta

ASIER BENGOAK ESPETXETIK

Zer diren niretzat, preso nagoe-larik, lagunetik harremanak? Ez dauka erantzun errazik Iñaki lagunak pausatutako galderak. Finen, hemen zaudela edota kalean harreman bakoitza bakarra eta berezia delako bere horretan. Hortaz, esango nuke guztiok dugula harreman afektiboan beharra, berdin-berdin espetxean edota kalean. Aferada, noski, norberak egoera bereziki konplikatu bizi duenean, behar hori nahiko biderkatzen dela eta espetxean egotea bereziki konplikatu da. Hori edozeinek uler dezake.

Gu pertsona bezala suntsitzeko espreski diseinatutako eremuan bizi gara egunean 24 orduz, astean zazpi egunez eta horrela urte luze luzeetan zehar. Eta horrek izugarri handitzen du lagunetik beharra, jakina.

Aurrekoan esan nion Iñakiri A Lamaruntz abiatu aurretik: *lagunak arnasa zarete, arnasa eta bizia, itotzeko eta akabatzeko den asmakizun anker honetan. Indarra, bizitzeko eta sentitzeko gogoia edota moduluko burkide eta lagun batek dionez: kaleko erritmoari neurria hartzeko aukera, gu bezala gatibu direnak ahantzi gabe, noski.*

Mila gauza dira lagunak eta denak aldi berean. Espetxeak gure harreman afektiboak etetea du xede eta lagunetik pikutara bidaltzen dute asmo hori. Lagunak garaipen handia ere badira. Baina lagunena haratago doan aferada, ez da soilik kontu afektiboa. Presoon autonomia falta ia erabatekoa da. Gure behar materialak, intelektualak, behar guzti guztiak asetzeko hortxe prest daudenak dira lagunak, gure ongizatea bermatuz.

Zintzotasun osoz diot: norbaitek pentsatzen badu preso gai dela soil soilik bere kontzientziarekin bizi duen egoerari aurre egiteko, tronpatzen da edota bere burua engainatzen du. Aurreko guztiagatik pilatzen da kitatu ezineko zor bat lagunekin. Baina ez bilatu frustraziorik horrekiko. Bai zera! Harrotasuna eta maitasun inkondizionala. Aupa zuek, eta mila esker existitzen zaretelako. Muxu handi-handi bat eta laster arte.



1. Ainaraldapan gora. 2. Bordeletik abiatzeko prest. 3. Iñaki atsedean hartzen. 4. Senideen adierazpenak jasotzen. 4. Lugora sartzen

gertuago. Santiagora iristea nahikoa poz izan zen Ainararentzat. A Laman, ordea, Iñakiren pozak eta tristurak bat egin zuten. Ia urtebete zen Iker Zubia bisitatu ez zuela eta gogorra iruditu zitzaion Parisen, Asier Bengoarekin ia hiru orduz bertatik bertara egotetik, Zubiarekin 40 minutuz kristal bat tarteko zela hitz egitea. *Gure helburua espetxera ailegatzea zela pentsatu arren, Finisterren bukatu nuen bidaia ez nuelako sentsazio txarrarekin gelditu nahi eta askatasun haizea sentitzeko, dio Landak.*

Egoera ezagutarazi

1.800 kilometro eta milaka istorio. Horietako batzuk blog batean kontatu dituzte eta gehiago ere kontatzeko asmoa dute: www.naiz.info/es/blogs/xenderak. Orain arte zintzilikatutako bideoak gus-tura hartu ditu jendeak, beraz, bidaiariak dokumentalera salto egin nahi lukete. Horretarako materiala badute, baita esperientziadun lantaldea ere, baina gidoi-laria falta zaie. *Gure kontuez gain, senideen bizipenak ere jaso ditugu –batzuk oso esaldi gogorrak–. Grabazioak badauzkagu eta horrekin gauza asko egin daiteke.*

Pariserako turismo egitera joan direla uste du askok, baina turismo tokia izateaz gain, beste esanahi bat ere badu Ainar Balenciaga eta Iñaki Landarentzat Parisen, baita A Lama ere eta bietan espetxeek eta haietan dauden lagunak. *Gure ekonomia, agenda... lagun presoekin egin beharreko bisiten arabera antolatu behar ditugu. Beraz, dispertsioa salatzeaz gain jendeari egoera ezagutarazi nahi diogu Xenderak proiektuaren bidez: gu hemen bakean bizi gara, bai, baina oraindik urrutira joan behar dugu lagunak eta senideak espetxean dauzkagulako.*

Bi espetxe, biak Euskal Herriko oso urruti eta erdian Orio. Pedalkada bakoitza maitasunez eman eta hurrengo ibilaldia laburragoa izango delakoan bukatu zuten.

Goian bego

Txetik atera orduko eman nion tankera ez zela ohiko eguna. Ostiralak soinean eraman ohi duen giroaren arrastorik ere ez zen nabari gure kaleetan ostiral hartan. Kale bazterrek herritarron poltsikoak ziruditen. Tarta baten bat paseatzen, 5 euro galtzen ditugunean bezalaxe, begiak lurretik altxa ere egin gabe, burumakur bere bidean.

Joanak ziren hilaren hasierako alaitasunak eta alironak. Ikurrina ere makilaren erdiraino jaitzita, ximel. Beltzak hartua zion gaina horiari. Zerbait arraroa bazen mirotzen leinuan.

Nire irudipena izango zela, edo arraroa ni nintzela pentsatu eta nire egiteko ei ekin nien, ezer pasako ez balitz bezala. Baina, jendearen aurpegi zorrotzek, joera susmagarriek, zerbait bazebilkitela adierazten zidaten, ez zela irudipen hutsa, nahiz eta denek ezer pasako ez balitz bezala jokatu.

Urduri, presaka, nire onetik atera be-

harrean, berriro etxerako bideari ekin nion bertan salbu egongo nintzen esperoan.

Jakin-minaren harra, ordea, barruraino sartua nuen dagoeneko. Zer ote zuen berezitik irailaren 27 horrek? Zer ezkututzen ote zidan jendeak? Etxean erantzunik ez eta kalera irten nintzen ausart.

Nire harridurarako, jende mordoa zebilen, lehen ez bezala. Denak

Hurrengo egunetan, ohi den legez, denak gogoratzen ziren berak emandakoaz, denek maite zuten euren modura. Denek zituzten hitz ederrak eta oroitzapen ahaztezinak berari buruz hitz egitean

elizarantz zihoazela konturatu nintzen. Pista horri jarraika, hil kanpaiak entzun eta baten batenak egin zuela ondorioztatu nuen.



Azkenean argitzen ari zen misterioa, aldamenekoak eman zidan notizia: gazte festak zirela azken arnasa eman zutenak, azken aldian harrapatutako gaitzak jota, *pasotisiak* jota, hain justu ere.

Hurrengo egunetan, ohi den legez, denak gogoratzen ziren berak emandakoaz, denek maite zuten euren modura. Denek zituzten hitz ederrak eta oroitzapen ahaztezinak berari buruz hitz egitean. Galtzen denean baloratzen omen dira gauzak eta hau ere ez zen salbuespena izan.

Batak bestearen bizkarrera botatzen zuen erruaren zama, batak besteari leporatzen zion bere garaian zaindu ez izana, baina denek zuten berandu konturatzearen damua, mamua.

Baina argi! Balea biziberritzeko kapaz izan baziren...

IZARRA BIDEOA

Eusko Gudari 44
Tfnoa: 943-83.38.81
20810 - ORIO - GIPUZKOA

TIEN 21

SIEMENS



789€

2 METRO

ZANUSSI



6 KG 279€

7KG 299€

TIEN 21



399€

ACER 750HDD



+ iPod

48€

Philips



19" 149€

22" 169€

BALAY



259€

10 HILABETEKO FINANTZIAKETA INTERESIK GABE

"HARRAPATU ITZAZU BIGARRENGO PREZIOAK"

Bakardaderantz

Fzusteko bisita batek eragin handia eduki dezake pertsona batengan. Bihotzekoak emateraino ere zenbait kasutan. Bai, alajaina! Izan ere, gaur egun, posta-gizona ere oso gutxitan igotzen da etxeraino: ordain-agiri batekin doala, ez bada; edota zure sinadura eske igo, zerbait garrantzitsua betetzeko helburu zehatz batez. Butano-bonbona banatzaileak ere ez dira ibiltzen herrian ia; eta dabilen bakarren bat edo beste, astean behin-edo azaltzen omen da. Aspaldi da, ez dutela etxez etxe banatzen bonbonarik; ezta jende helduari etxeraino igo ere, edozein pertsonari igotzeko agindua izan arren. Beheko atarian utziko dituzte, bertan butano-bonbona hutsa badago,

eta nongoa den ondo adierazita egonda, itsatsita-edo. Honela banatzaileak behetik etxeko txirrina joz, jaitsiarazi egingo zaitu, ordain diezaiozun. Eta horrela ia dena, egia esan.

Beraz, egun, zure etxera ate joka igotzen direnak, bereziki, *Jehovah-ren lekukoak* izaten dira, euren mezua zabaltzera, edota kaleko itzoretan bat edo beste diru eske. Eskean batere lotsarik gabe horiek ibili ere. Eta hori norbait bere etxetik beheko atea irekitzen badio. Lapurrak, bai, jakina: horiek igotzen saiatuko dira, gero, nola edo hala, etxera sartzeko. Horrelakoak etxean sartuko zaizkizu lapurretan egiteko, aukera txikiena ikusiz gero. Zu konturatzera, barruan izango dituzu. Bai azkar gainera! Eta euren mesederako edo gustuko ezer gutxi topatzen badute, batere ez harritu, duzuen telebista edota musika ekipoa agertzea etxeko bainuontzian, urez gainezka. A zer nolako gizatxarrak diren gaurko lapur asko. Alproja halakoak! Gaur egun ez da besterik pentsatzen kaltea egitea baino; lehen ere horrelaxe izango zen, baina... Min egin behar horrek halako poztasuna ematen duela dirudi, tamalez.

Lehen, ordea, ez zegoen hainbesteko beldurrik, ia denok elkar ezagutzen baikenuen herrian. Askok edo gutxiago. Hortaz, etxera edonor igotzen zen edozein aitzakia baliatuz, behoko ezkaratzaren atea edo atearik zabal-zabalik egoten baitziren edonorentzat. Eta etxeko atea bera irekita bazegoen *Ai Maria!*, esaten zuen kanpotarrak. *Aurrera bira!*, izaten zen etxeko andarearen erantzuna. Sukalderaino sartuko zitzaion, azkar asko. Jen-dea beste patxada batean bizi zeneko sasoiaren hura, bai horixe!

Aurreko giro lasai hori ez dela gehiago itzuliko dirudi. Hori dela-eta, beldurrak airean gaude ezezagunei atea zabaltzeko, edonor dela ere. Horri guztiari aurre egiteko atezain elektronikoak eta ate brindatuak jarrita eduki arren, aurrerantzean gero eta bakartiago bizi beharko dugula esango nuke.

Hobekuntzak hobekuntza gero eta isolatuago gaude egun, nire ustez. Zoritzarrez.

Nire honetan
Irati Agirreazaldegi

Poltsan baino belarrian

Telebista piztu eta harrituta. Bi ume sakelako telefono bati begira begiak erabat zabalduta. Nire telefonoak jo eta hartzeranoa beste denak ahaztuta.

Telefonoa etxean utzita joan naiz kalera. Nire buruari esan diot: agian hobea da.

Iritsi naiz lagunengana eta hau da hau panorama. Telefonoz hitz egiten bat, *whatsapp* irakurriz bestea eta mezua bidaliz hurrengoak; badirudi ni naizela bakarra-telefonorik ez daukana.

Ez dute ez egingo orain dela gutxi entzundako erronka. Telefonoa zeinek ez hartu egon arren joka, lehenengo erantzun duenak ordaindu beharko du tragorako kuota.

Etxera bidean, taberna bateko atean horrelako kartela: ez dago wi-firik, sartu eta hitz egin dezagun zuk eta nik.

Itzuli naiz etxera eta lehen begiratua mobilerara. Hori normala ote da?

Normala da, bai. Nahiz eta horrela izaterik ez nahi.

Bizi gara sakelako telefonoaren mendeko; beharrezko ez denean ere erabiltzeko.

Telebistan haurren ahotsa. Konpainiak ez al du umeak iragarkian jartzeko lotsa?

Esanak esan bihar berriz ere telefonoak hartuko du nire poltsa eta goizean goizetik hasiko naiz entzuten harren hotsa. Inor gutxi ez du gaur egun sakelako telefonoaren morrontza.

Gaur egun ez da besterik pentsatzen kaltea egitea baino; lehen ere horrelaxe izango zen, baina... Min egin behar horrek halako poztasuna ematen duela dirudi, tamalez. [...]
[...] Horri guztiari aurre egiteko atezain elektronikoak eta ate brindatuak jarrita eduki arren, aurrerantzean gero eta bakartiago bizi beharko dugula esango nuke

HIROMASAJISTA
etxeko zerbitzua

- Masaje terapeutikoa
- Masaje erlaxagarria
- Hirol masajea
- Zirkulazioa hobetzeko masajea
- Estresaren aurkako masajea

Tf.: 676 198 904

ANORGA TXIBI S.L.
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak
- beira bikoitza
- segurtasun beirak
- dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak
- barandak
- kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45



gizarte
kutxa

libe
dietetika
elikadura aholkularitza

merkeago
bikoteka datozenentzat

eusko gudariak 35 :: ORIO
[sarrera Arrantzale kaletik]

943 53 64 94 :: 697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com



Maider Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.
Arrantzale 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa
Tel. 943 575 361
www.podologia-oinarri.com

oinarri
PODOLOGIA ZENTROA



PATXI OLIDEN

Hemengo haragia.
Etxeko produktuak: tripaki, odolki,
bukorra, txorizo, kroketak...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10



SARASUA ERRETEGIA

Santxo Erreka Auzoa, 49
943 89 24 84
20809 AIA-ORIO

*Lezakak berenbe otelak
juntako erretik erretik maza*



IGLESIAS SARRAILAGILEAK
WWW.IGLESIASCERRAJEROS.COM

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesiascerrajerros@gmail.com
2010 ORIO

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnoak: 943 83 59 00

uranga
autozerbitzua



Aliprox

Eusko Gudari Kalea 13-15
ORIO
943 83 38 75



Sagasti
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI
Tf / fax: 943 13 00 77
sagastileihok@telefonica.net
Arrantzale kalea, 65
20810 Orio (Gipuzkoa)

ITZALA

*kartela jokatzeko
apropok*

tel. 943 83 12 59

Santi Barranco aseguru agentea

Arizaga 2. 2. ezkerria ORIO
Tf. 618 581 398 - 659 218 221 e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com

SEGUROS BILBAO | Grupo CATALANA OCCIDENTE



FISIOTERAPIA, Garkoitz Aristegi eta Natalia Wierszen
NUTRIZIONISTA, Gorbile Aizpuru

sinergia investigacion fisioterapia

ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 - 685 71 85 95

SARASUA ERRETEGIA

Plater bereziak:
-Arrain zopa
-Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29 **ORIO** Tel: 943 83 00 05/
943 13 25 32

Gaia emanda Ikastetxeetako egokitzapena

Ikasturte hasieran haur txikiak eskoletako girora egokitzeko epe bat izaten dute. Guraso, haur eta irakasleek bat egiten dute ikastetxean eta gertutik bizi dutenaz hitz egin digute.

Eskolatzea ahalik eta samurrena

Eskolara lehen aldiz sartzea urrats garrantzitsua da haurren bizitzan. Gurasoengandik bereizi, espazio eta pertsona berriak ezagutu, eta hauetara egokitu behar baitute. Baina egokitze hori ez dute haurrek bakarrik egiten, familiek ere egiten dute, bereizketa momentu hori zaila baita beraiantzat ere. Eta bien artean irakaslea dago, haur eta gurasoen arteko zubi lan hori ahalik eta modu goxoenean egiteko prest. Haurren heziketan egokitzapen prozesuak duen garrantzia oso garbi izan arren, garai hau irakasleoi ere ez zaigu erraza egiten.

Orain artean familia izan da haurren erreferentzia, ingurua ulertu eta ingurukoekin erlazionatzeko oinarri sendoa. Hori dela-eta, familiarekiko banaketa momentu zaila da txikientzat. Banaketa fisikoaz gain, babes falta eta abandonu sentimendua izan ditzake haurrak. Horren ondorio dira negarrak, agresioak, objektuekiko atxikimenduak, loaldi aztoratuak, jateko gogo ezak, edota esfinteren kontrolean atzerapausoak, besteak beste. Erreakzio hauek guztiak gauza normal eta natural modura ulertu behar ditugu, haurrek barnean bizi duten zurrumbilo hori adierazteko edota azaleratzeko duten modua da. Prozesuaren parte dela esan daiteke.

Baina noski, gurasoen larruan sartuta, ez da erraza norbere seme edo alabatxoaren erreakzio horiek

ikustea. Beldurrak, zalantzak edota erruduntasun sentimenduak ager daitezke. Eta horrez gain, ezin ahaztu egokitzapen-aldia norbere lanbide edota eginbeharrekin kontziliatzeko dauden zailtasunak.

Haurrak eta familiak ulertu, eta prozesu honetan modu pertsonalizatu batean laguntzea izango da irakasle on lana. Horretarako, besteak beste, egutegi eta ordutegi bereziak prestatzen ditugu haurrak eskolara pixkanaka eta progresiboki egokitu daitezen. Lehenengo egunetan talde txikietan jarduten gara, ordubeteko saioekin hasiz. Gurasoak ere gelan izaten ditugu, alde batetik, kezka eta zalantzak argitzeko, eta, bestetik, haurrei ziurtasuna eskaintzeko. Eta pixkanaka-pixkanaka, gurasoak gelatik aterako dira, eskola orduak gehituko dira, eta haur gehiago elkartuko dira talde berean.

Dena dela, malgutasuna izango dugu oinarri, gehien-go batentzat baliagarria denak agian ez baitu balioko beste batzuentzat. Haur eta familia bakoitzaren erritmo eta behar propioak errespetatuko ditugu. Modu honetara, haurren eskolatzea ahalik eta modu samurrenean aurrera eramaten saiatuko gara.

Leire Iruretagoiena

Zaragueta Herri Eskolako irakaslea

Moldaketa aldia

Egokitzapena. Hamaika istorio, emozio, harreman... Gauza asko mugitzen da aro honetan. Urtero sasoi honetan bolo-bolo dabilen gaia. Beharrezkoa al da?

Europar Batasunaren aholkuak eta aginduak ez betetzea leporatu dio Familia Politikako Institutuak Espainiari: *Lanaren eta familia bizitzaren arteko kontzilioa ez da egiazko lehenitasun politikoa*, dio institutuak maiatzeko kaleratutako txostenean.

Francesco Tonucciren esanetan, haurrak 4 hilabetetik 2-3 urtera arte eskolatzearan arazoia, zoritxarrez, familiari laguntzea da, ez haurraren garapena. Gai korapilatsua. Haurra jaiotzean ia inoiz ez da aldatzen gurasoen lan egoera, ingurukoa egokitzen dugu nahiz eta haurraren presentziak beharko lukeen ardatz nagusia.

Zorionez, herrialde batzuetan, familia politikak izugarrizko garrantzia dute, eta haurrek lehenengo urteak etxe inguruan egon daitezen laguntzen da, amatasun edo aitatasun baja luzeagoz. Gero, haurraren zaintzan gurasoek parte hartzeko erraztasunak ematen dituzte.

Datuak begiratzen jarrita izugarriko desorekak daude herrialde batetik bestera. Europan 4 herrialde bakarrik gara ia %100 4 urterako eskolatzen ditugunak, eta erdiak ez dira eskolatzearan %100era iristen 6 urtera arte.

Euskal Herrian, errealitate ezberdinak bizi ditugu. Nafar-

roan eta Iparraldean eskolatzea 3 urterekin egiten da, aurretik ume gehienak familietan egoten dira. Komunitate Autonomoan, haurren %80 inguru eskolatzen da 2 urterako eta ia %100 3 urterako.

Rafael Cristobalek, heziketaren oinarriko bi printzipio betetzea proposatzen du: *gurasoak, lehen-lehenik haurraren erritmoetara moldatzea; eta umearengan konfiantza edukitzea... lehen bost urteak funtsezkoak dira, baina bereziki aurrenekoa: konfiantza eraikitzen ari baita umea.*

Carmen Magantok, haurtzarora zaintzea bizitza osasuntsu baten abiapuntua dela dio: *haurra artatzeko eta afektuz betetzeko gurasoek presente egon behar dute.*

Egokitzapen garaian gurasoengandik bereiziko da haurra; espazio berri batean; bizitzaren lehen urteetan objektuen kontzientziarik ez duenez, umeak usteko du begien aurretik desagertu dena, agian ez dela berriz agertuko, hori une gogorra da umearentzat. Haurrak lotura afektiboa hautsi dela sentitzen duelako eta horrek etengabeko negarra ekarri ohi du, sentimendu hori kanporatzeko duen modu bakarra baita.

Horren aurrean, gurasoekiko banaketa umearentzat, familiarentzat eta hezitzaileentzat ahalik eta egokiena eta gozoena izan dadin, moldaketa-aldia lasaitasunez, konfiantzaz eta gardentasunez egitea da gakoa.

Ainara Peña

Orioko Herri Ikastolako irakaslea



Andoni Egaña bertsotan; atzean Sebastian Lizaso eta Jon Maia kanturako prest. KARKARA

Bertso doinuan bogan

Kritika Bertso saioa

Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Sustrai Colina, Xabi Paya, Andoni Egaña, Sebastian Lizaso eta Jon Maia.

Gai-jartzailea: Unai Manterola.

Karelan arraun horiak eta batela bertsoekin bat eginez. Gai bakarra arrauna izango zelakoan joan nintzen saiora, astun gertatuko zen ustean, amaieran, ordea, bes-telako inpresioa izan nuen: arraunaren baitan gai asko jor-ratu daitezkeela.

Unai Manterola, txukun eta bizi aritu zen Orioko arraunaren historia laburtuz. Bertso-lariek arraunaren alde onenak eta txarrenak azaldu zituzten: kolorea;

arraunketa – bakoitzak berea eta guztiak batera – eginda-koa; elkartasuna; estropada bera, haserreak eta kaleak.

Igerian ez zekiten arraunlari-eran ere jardun zuten. Apustuak bertsolari txapelketa eraman gero eta arraun-errian hasi berri den umearen guraso ere izan ziren.

Egañak bertsolariekin batela osatu ondoren, ordeko arraunlari gisa batzuk eta pisua zaindu beharraz kantatu zuten besteek, dena umorez.

Manterolak 1983ko Kontxako bandera Maia zumaiarri eman eta *laster kenduko ziotela* esanez, barre algarak entzun ziren jendeartetik. Barre txikia ezpainetan aritu zen Maia. Banderaren gaia zumaiarrek azal dutakoan purrustadarik ere izan zen.

Kale zozketei buruzko jarduna barregarria izan zen, serioak itsasoari botatako bertsoak. Taldea jaistear zela animatzen izandako jarraitzaile apurrei jarri zizkien bertsoak Lizasok. Kontxatik trenean bueltatu eta txartel-zulataz ailearekin izandako elkarrizketak trenean adinako barreak sortu zituen.

Bukatzeke arraun-hiztegia bertsolarien ahotan. Entzuleen artean denak zekizkien gutxi eta berea azaltzen Egañak baino ez zuen asmatu.

Batera boga eginez banderairabazteko bertsotan arituko zirela esan zuen Lizasok eta entzuleok ematekotan jasoko zutelakoan nago; barre egin eta gozatu baikenuen.

IRATI AGIRREAZALDEGI

Ikasleak idazle
Leire Izagirre

Antillako plaza berria

Antilla aurreko txoko hori gazte askoren topagunea izan da, bai ikastolara joateko zein asteburuan koadrilarekin gertatzeko, eta harrigarria da nola aldaketa izan duen lehendik oraino. Orain harrizko eserlekuak daude, errepiderako bidea itxi dute eta espaloia maila berean dago; beraz, jendeari segurtasun gehiago ematen dion eta istripuak gutxituko dituen aldaketa.

Hala, eta lorez apaindurik, lekuak beste xarma bat du, eta lagunekin egoteko toki berri bat



dugu herrian.

Kontua da, berrikuntza hau egiteko lehen ziren bizikletak uzteko tokia eta moto-aparkalekua tokiz aldatu dituztela, baina herriko gehienek kendu egin dituztela uste dute. Horregatik uste dut bizikletak uzteko tokia Laboral Kutxaren aurrean dagoela eta moto-aparkalekua DIA aurrean dagoela jakinaraztea garrantzitsua dela.

Bizikletak uzteko tokia Laboral Kutxaren aurrean dago eta moto-aparkalekua Dia aurrean

Armentis Plaza 1 - 8. Solairua - 20.000 Ate
Tel. 943 84 62 13

kix
kax

estelika

ileapaindegia

LEUNDA
OKINGEDIA

ORDUTEGIA

ESTELIKAK 19 - LANUATZAN
7:00 - 20:30

KUOKO 19.00 - MARIKIN
7:00 - 13:30

Tel. 943 83 66 67

Faroeko bakailaoa
daukagu

**ITSAS
MENDI**

gutizlak

Euzko Gudari, 5 Tel. 943 24 67 74 Oriu

**SU
KIA**

TABERNA - JATETXEA

On agin eta gero... haritu KOPA eta TOPA!!

- OILASKO ERREAK ERAMATEKO
- EGUNEKO MENUA
- EGUNKARIAK
- OGIA

Tel. 943 862 129
ABANDONEN 16, 1. BARRUA

» HANDIK ETA HEMENDIK

“

Kilometroetan urte osoko lana egun batean jokatzen da; jaiaren baitakoa da hori. Dena dela, ezin da gai horrekin itsutu, eta ilusioz antolatu behar ditugu jai bera eta horren inguruko ekimenak.”

“2014ko Kilometroen festan lortzen diren irabaziak Ikastolako eraikin berriaren hipoteka ordaintzeko izango dira.”

Joseba Orella, Kilometroak 2014ko koordinatzailea, Urola-Kostako Hitza, 2013ko irailaren 18an.

» OSPAKIZUNA



Ezkonberrien bidaiia Oriora

Ezkontzako eguna berezia izaten da bikotearentzat eta are bereziagoa egin diete lagunek Gorka Elizondo eta Saioa Azkue Alkortarentzat. Irailaren 2lean San Martingo ermitan ezkondu ziren eta Getarian bazkaria egin ondoren, Orioko hondartzako tabernetan festa. Ezkonberriak ez ziren nolnani iritsi, ordea, Getariatik Orioko hondartzara helikopteroan etorri baitziren arratsaldean. Ezkon-bidaiia laburra baina berezia.

» ZORITXARRAK!

Zaborrontziak lurrean

Kexatu egin ohi gara bide bazterrak zaborrez beteta ikusten ditugunean eta ez da ez ziki-nak botatzen dituzten horiek zoriontzeko modukoa.

Hala ere, askotan, oinez, korrika zein bizikletaz doan ez du zakar txikiak botatzeko moduko zabor ontzirik aurkitzen. Ikusi besterik ez dago Munto inguruan pape-rontzi denak nola botata dauden eta zaborra lurrean, Mendibeltzetik hasi eta autopistako zubi azpiraino ia.

Etxeluze inguruan dauden -edo zeuden- zabor ontzi batzuk ere falta dira. Bada denboratxo bat puskatu zituztela eta berririk ez dute jarri. Beraz, zaborrak botatzeko lekua faltan da inguru horietan.

KAIUA

Plater konbinatuak,
boikatak, hanburgesak...

ANIBARKO PORTUA 25, BEHEA TF.: 943 840 060

943 572 870

KOASTA

Wifi zerbitzua

Kopak, gau giro aparta...

MANTEROLA S/L
ESFERA ETA RETENTZIOKO
BALBULAK

Santiago auzoa - 12 postakutza
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 638
Email: 1manterola@1manterola.com
70819 ORIO - GIPUZKOA

Eskerako balbula
AENOR kalitatehurtariki

KOLON TXIKI

antzerkitagia
jiteub.com

Herriko Euzarantz, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44

kutixi
kafetegia
GOSARI GOXOAK

Artizaga 6, 20810 Orio
TF. 943 13 15 17

ESTUDIOKO 4 ARGAZKI 15X20

RAMIRO
argazkiak

www.fotoramiro.com
fotoramiro@fotoramiro.com

610 69 76 68
943 83 10 48

LEHEN
80 EURO

ORAIN
60 EURO



Jose Manuel Egibar Getarian, atzean bere igerilekua duela. EGIBAR FAMILIA

Igeri Donostiatik Oriora

Oroimenaren kutxa

Basa den igandean, irailak 22, udarari agur esateko, Donostiako Haizeen Orrazian uretan murgildu eta Orioko hondartzaraino etorri zen igeri, Antillara. Lau ordu eta erdi behar izan zituen igerialdian, goiza.

Jon Sarasua Maritxalar 47 urteko gazte sasoitsuak egin zuen itsasoko goiz-buelta. Aspalditik bere buruari jarria zion erronka bete zuen. Jonnek mitifikatua zuen Orio eta Donostia lotzen dituen kostaldelabarrez bete hori, txikia zela bere amak aitonaren joan-etorriak kontatzen ziz-

kionetik. Aitona *Txolarra* arrantzalea zen eta arraun-ean ibili ohi zen itsas bide horietan. Oriotik Donostiara joatea zuen asmoa, baina igandean zebilen ekialdeko haizetxoak norabidea aldatzera ekarri zuen Sarasua, handik hona etortzera.

Jon bere aitona gogoan zuela adoretu zen itsasoko zeharkaldia egitera. Ni, Jonen ilusioa eta kemena ikusita, oroitu naiz beste oriotar batez: igerian distantzia handiak egiten zituen Jose Manuel Egibar Salsamendiz. Gizon handia zen Jose Manuel, hitzaren zentzu guztietan, gorputzez eta bihotzez, gogoz eta ekimenez. Itsasoa zuen ibiltzeko lekurik kuttunena, uretan moldatzen zen ondo-

en, eta itsasoa ibiltzen zen igerian kilometroak egiten. Behin Getariatik Donostiaraino egin zuen. Zazpi ordu eta hamar minutu behar izan zituen. Ehun eta berrogeitik gora kilo zituen orduan.

Uretanez zuen ustekaberik izan, lehorrean gertatu zitzaion ikaragarria: automobileko istripu zoritxarreko batek eraman zuen gure artetik orain dela 20 bat urte. Orduan buruan zebilkiyon Gibraltarreko itsasarte igerian pasatzea. Plana prestatzen hasiazten. Ezin izan zuen. Baina Jose Manuelek arrastoa utzi zuen, haren sentimenduen handitasunak ubera sakona. Gogoan dugu.

¡ INAKI ITURAIN !

» EZKONDUTAKOAK

■ Saioa Azkue Alkorta eta Gorka Elizondo Enbil, Orion, irailaren 21ean.

» HILDAKOAK

■ Jose Maria Mendizabal Aiestaran, Aian, irailaren 12an, 90 urte.

■ Bernardina Ayestaran Etxeberria, Orion, irailaren 19an, 82 urte..

Jose Maria Mendizabal Aiestaran

jauna

Aian hil zen, 2013ko irailaren 12an 90 urte zituela.

Senitartekoek bereziki eskertzen dituzte jasotako samin agurrak baita hiletara joan izana ere.



Lizaso
dekorazioa

Eusko Gudari, 4b
Tel: 943 83 07 84 Fax: 943 24 87 12

LORETXU JATEKIN

Eusko Gudari, 18 Tel: 943 83 00 07

LURDES
IRKARDEGI

Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

Be zpaindegia
MARIJO

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - bajo
Tel. 943 13 47 29
ORIO

“Norbera modan dagoenaz seguru ez badago blogetik ideiak hartu ditzake”

Maria Arruti

Moda blogaria

Moda kontuak arroparekin lotzen ditugu gehienetan. Kaleko, dendetako eta pasareletako modeloez gain, internet ere modaren erakusleihu nabarmena da. Moda blogak modan dauden honetan blogari oriotar batekin izan gara.

IRATI AGIRREAZALDEGI

Maria Arruti ume zenetik, etxean beti izan ditu moda aldizkariak. Pixkanaka berari interesa handitu eta etorkizunean modaren inguruko bidea hartu nahi zuela erabaki zuen. Hori dela-eta gertukoek moda bloga irekitzera animatu dute eta abian da *smellikestyle.blogspot.com*.

Modan al daude moda blogak?

Orain dela urte batzuk izan zen moda blogen *boom*a. Orain milaka daude eta pentsatu dut une egokia izan daitekeela modarekiko nire interesa erakusteko.

Bloga zure komunikazio ikasketen erakusle ere bada?

Banekien modaren inguruko zerbait ikasi nahi nuela. Diseinurako bokazioa behar da eta ez nuen nire burua gai ikusten pentsamenduak irudietan islatzeko.

Komunikazioa aukeratu nuen irekiagoa delako eta ez dagoelako zertan modaren bidetik joan beharrik. Gero, agian, master batekin-edo modaren alorra jorratuko dut. Lehen pausoa izan daiteke bloga eta ikasketetarako ere lagungarria da.

Zer erakusten duzu zure blogean?

Modaren nire ikuspegia. Esaterako, gaur egungo modaz gain, amarenak diren aspaldiko arropak ere erabiltzen ditut eta horiek nola konbinatu daitezkeen azaldu. Jantzi, argazkiak atera eta blogean jartzen ditut azalpenak emanez. Hasieran, jendeak zer esango ote zuen pentsatzeak lotsatzen ninduen, baina lotsak inora eramango ez nindueenez, aurre egin eta ni agertzen naiz. Aurrerantzean, agian, norbait nola jantzen den asko gustatuz gero, hari argazkia atera eta horri buruz hitz egingo dut.

Norbera seguru ez badago modan dagoenaz edo erabil daitezkeen arropa edo osagarriez, blogetik ideiak hartu daitezke. Esaterako, armairutik zer berreskuratu dezakeen edo zer ez duen balio.

Nondik ateratzen dituzu ideiak?

Urte asko dira blogak jarraitzen ari naitzela, gehienak atzerrikoak. Desfileen bideoak ere ikusten ditut baita aldizkariak ere. Nik barneratu egiten dut eta gero nire estilora egokitu eta erakutsi. Aurrerantzean ere horrela segi nahi dut eta behar bada beste elementu batzuk ere sartuko ditut. Denbora askoan blogean ezer sartu gabe uztea ez baita komeni. Moda blog baten arrakastaren oinarria bakoitzaren estiloa erakustea da. Norbera gustura egonez gero, hori argazkietan ikusiko da. Nik kalerako arropa xumea erakutsi izan dut gehienetan informala eta noizbait dotoreagoa -afariren bat izanez gero-edo-.

“Diseinurako bokazioa behar da eta ez nuen nire burua gai ikusten pentsamenduak irudietan islatzeko, beraz, komunikazioa ikasten ari naiz”

“Moda blog baten arrakastaren oinarria bakoitzaren estiloa erakustea da. Norbera gustura egonez gero, hori argazkietan ikusiko da”

Kalean begiratzen al duzu jendea nola jantzen den?

Zerbaitek atentzioa emanez gero bai. Erakusleihuotan estilo bat ikusi eta gero norbait horrelako arroparekin jantzita ikusten dudanean inspirazioa sortzen dit ni nola jantzi jakiteko.

Interneten ikus daiteke zein jantzi erabiliko diren, baina askotan ezin dira lortu, blog ezagunenetan marka oso garestiak erakusten baitituzte. Kalean gustuko zerbait ikusiz gero, ideia hartu eta baliteke dendaren batean aurkitzea.

Jarraitzaile asko al duzu?

Bai, eta asko atzerrikoak. Harritzekoa da hain urrutikoen bisiten berri izatea. Jende gehiagorengana iristeko nik ere euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez idatzen dut. Behin ikastolako irakasle batek idatzi zidan eta horrek asko poztu ninduen. Ingurukoek bloga ikusi dutela jakitea polita da.



KARKARA

» AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Salgai

■ Koltxoi on eta oso gutxi erabilitakoa dut merke-merke saltzeko -250 euro, erositako prezioaren he-renean-. Viscolastikoa eta erdian muelleduna, 1,80 x 1,90m neurrikoa. Tf.: 634 429 459

■ Autoa salgai. Kia Carens 1.8 monobolumena. Matrícula: 4405BVV. 105.628km. Tintatutako beirak, parrilla eta kutxa. Barrutik erabat txukun. Asegurua 2014ko martxora arte. 2.500 euro. Tf.: 674 076 785.

Alokatzeko

■ Sarrikon Marketing gradua ikasten hasiko den oriotarra Bilbon partekatutako etxebizitza eta pisukide bila. Tf.: 658 520 392

Alokagai

■ Apartamentua alokagai Hondartza kalean. Logelak, guztiz ekipatua, bikote batentzako aproposa. Tf.: 663 447 266.

Lan eskaerak

■ Adineko gizezkoak zaintzeko edo beste edozein lan egiteko prest. Gizon gaztea, arduratsua eta zaintza lanetan esperientziaduna naiz. Tf.: 632 569 121

■ Edozein lan egiteko prest 10:00etatik aurrera. Tf.: 666 116 641 -Nubis-.

Erosi

■ Lur zati bat erosiko nuke Aia, Orío edo Zarautz inguruan. Borda baldin badu hobe. Tf.: 615 790 965.

Galdutakoak

■ Kartera gorria galdu dut. Barruan bost pendrive ditu. Norbaitek aurkituko balu, Kultur Etxeko harre-rara ekarri, mesedez.

Aurkitutakoak

■ Ume baten txaketa bakoera aurkitu dut Baxoalde kalean. Galdu duenak deitu. Tf.: 943 831 998.

Auto-partekatzea

■ Goizero Oñatira ikastera joan behar dut eta autoa partekatuko duen norbaite-n bila ari naiz. 08:00 eta-rako Oñatin egon behar dut 14:30etik aurrera buel-tatzeko. Tf.: 627 630 022 -Mikel Arregi Satrustegi- edo Muxutruk lore dendan.

» ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
27	10:36 eta 23:22	04:12 eta 16:57	☾
28	11:59 eta ____	05:24 eta 18:18	☾
29	00:52 eta 13:21	06:46 eta 19:33	☾
30	02:02 eta 14:21	07:54 eta 20:29	☾
01	02:52 eta 15:07	08:45 eta 21:12	☾
02	03:32 eta 15:45	09:27 eta 21:50	☾
03	04:07 eta 16:20	10:04 eta 22:25	☾
04	04:40 eta 16:55	10:39 eta 23:00	☾
05	05:14 eta 17:29	11:15 eta 23:35	☾
06	05:48 eta 18:06	11:52 eta ____	☾
07	06:24 eta 18:43	00:12 eta 12:30	☾
08	07:02 eta 19:25	00:50 eta 13:11	☾
09	07:45 eta 20:11	01:32 eta 13:57	☾
10	08:33 eta 21:06	02:19 eta 14:50	☾
11	09:33 eta 22:15	03:14 eta 15:53	☾

» ZAINTZAKO BOTIKAK

IRAILA

- 27an, Lasa. 943 13 31 83 Zarautz
- 28 eta 29an, Larrañaga. 943 83 23 98 Zarautz
- 30ean, Mutiozabal. URRIA
- 1ean, Etxeberria.
- 2an, Gallo.
- 3an, Azaldegi.
- 4an, Zulaika.
- 5ean eta 6an, Iriarte.
- 7an, Etxeberria.
- 8an, Gallo.
- 9an, Azaldegi.
- 10ean, Zulaika.
- 11n, Iriarte. Gaueko zaintza: Iriarte.

Azaldegia: Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz

Etxeberria: Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz

Mutiozabal: Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz

Larrañaga: S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz

Lasa: Herriko plaza. 943 83 09 36 Orío

G. Artifiano: Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz

Iriarte: Zinkunegi, Piarbtxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz

Zulaika: Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz

» AUTOBUS ORDUTEGIAK

LANEGUNETAN

DONOSTIA-ORIO-ZARAUTZ

Donostia	6:55	7:40	8:10	8:40	9:10	9:40	10:40	11:40	12:10	12:40	13:10	13:40	14:10	14:40	15:10	15:40	16:40	17:40	18:10	18:40	19:10	19:40	20:15	21:00	22:15
Orio	7:30	8:15	8:45	9:15	9:45	10:15	11:15	12:15	12:45	13:15	13:45	14:15	14:45	15:15	15:45	16:15	17:15	18:15	18:45	19:15	19:45	20:15	20:50	21:35	22:50

Zarautz	7:40	8:25	8:55	9:25		10:25	11:25	12:25	12:55	13:25	13:55	14:25	14:55	15:25		16:25	17:25	18:25		19:25	19:55	20:25	21:00	21:45	23:00
---------	------	------	------	------	--	-------	-------	-------	-------	-------	-------	-------	-------	-------	--	-------	-------	-------	--	-------	-------	-------	-------	-------	-------

ZARAUTZ-ORIO-DONOSTIA

Zarautz	6:45	7:15	7:45	8:15	8:45	9:20	9:45		10:45	11:45	12:45	13:20	13:45	14:20	14:45	15:20	15:45	16:45	17:45	18:45		19:45	20:45	21:15	
Orio	6:55	7:25	7:55	8:25	8:55	9:30	9:55	10:30	10:55	11:55	12:55	13:30	13:55	14:30	14:55	15:30	15:55	16:30	16:55	17:55	18:55	19:30	19:55	20:55	21:25

OSPITALEAK

OSPITALEAK-ORIO-ZARAUTZ

Ospitaleak	8:10*	8:15	9:15	10:15	11:15	13:15	14:15	15:10*	17:15	18:15	19:15	20:15	21:15	22:10*
Orio	8:30	8:55	9:55	10:55	11:55	13:55	14:55	15:30	17:55	18:55	19:55	20:55	21:55	22:30
Zarautz	8:40	9:05	10:05	11:05	12:05	14:05	15:05	15:40	18:05	19:05	20:05	21:05	22:05	22:40

ZARAUTZ-ORIO-OSPITALEAK

Zarautz	7:15	7:45	8:45	9:45	10:45	12:45	13:45	14:10	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:15
Orio	7:25	7:55	8:55	9:55	10:55	12:55	13:55	14:15	16:55	17:55	18:55	19:55	20:55	21:25
Ospitaleak	7:45	8:15	9:15	10:15	11:15	13:15	14:15	14:45	17:15	18:15	19:15	20:15	21:15	21:45

Zerbitzua autobidetik, lanegunetan bakarrik. *Donostia Pio XII-tik hasten da, 5 minutu inguru Ospitaleetara iristeko.

ASTEBURUETAN

DONOSTIA-ORIO-ZARAUTZ

Donostia	8:00	...ordu oro...	22:00	22:30
Orio	8:35	...ordu oro...	22:35	23:05

Zarautz	8:45	...ordu oro...	22:45	23:15
---------	------	----------------	-------	-------

ZARAUTZ-ORIO-DONOSTIA

Zarautz	6:45	...ordu oro...	21:45
Orio	6:55	...ordu oro...	21:55

Aia eta Orío arteko autobus zerbitzua Landabusek darama. Zerbitzuei buruzko informazioa lortzeko zenbait bide daude: www.landabus.com, Tf. 943 240114 sms-a 5280 zenbakira

tel/fax: 943 89 00 69
Bosnia kalea, 4. 20.000 ZARAUTZ



ITURGINTZA, BEROGINTZA, GASA, BAINU, ERAKUSKETA
Presiozko laguntzeko Zaki

XABIER URRETABIZKAIA

- Instalazio elektrikoak
- TDT antenak
- Atezain automatikoak

60 urte zerbitzua ematen

☎ 943 83 17 74
Arrantzale, 31. 20010 ORIO



ASADOR XIXARIO
Ezko Galtaren Kalea, 2
Tf. 943 800119 - ORIO



Katu Moria
BIOORGANIKO ELIKAZIA

ESTROPALARI, 10
20510 ORIO
tel. 943 11 66 99

LORRIONAK
608 67 64 88



Krisia bakarrizketa komikoan

Patxi Santamaria aktorearen *Aktibo toxikoa* antzezlanak ikusteko aukera izango da urriaren 4an, Kultur Etxean. Sarrera doanekoa da eta emanaldia 10:30ean egingo du. Bakarrizketa komikoak krisi ekonomikoa izango du ardatz eta dantza, mimoa eta klowna uztartzen ditu. Protagonista Bat Jauregi da, politikari izandakoa eta orain egoera latzean bizi dena, bankuak etxetik bota duelako. Hala ere, ez dago geldirik egoteko prest.

Hitzaldia

■ Urriaren 10ean, txakurren parasito-zoonosiei buruzko hitzaldia txakur jabeentzat, Udalak antolatuta Katu Horia klinikaren laguntzaz. Hitzalaria: Jon Ander Imaz albaitaria, 19:00etan, Kultur Etxean.

Orio

Kontzertua

■ Irailaren 27an, Nevermind taldearen kontzertua, 22:30ean, Kalakari tabernan.

Elkarretaratzea

■ Urriaren 27an, Preso eta iheslarien aldeko elkarretaratzea Herrirak antolatuta, 20:00etan, Herriko Plazan.

Mus Txapelketa

■ Urriaren 27an, mus txapelketa Herrirak antolatuta, bikoteko 20 euro, 22:00etan, Loretzu tabernan.

Irteerak

■ Irailaren 28an 10:30ean eta urriaren 5ean, 16:30ean, Kayak Ori ibaian, Turismo Bulegotik irtenda. Iraupena: 2 ordu. Prezioa: 12tik 16 urtera,

8 euro; gainontzekoak, 15. Uretarako arropa aproposa eramanez. Izen ematea: Turismo bulegoan -943 835 565-.

■ Urriaren 6an, Kilometroak, Gipuzkoako Ikastolen Festara, Tolosara, joateko autobusa. 09:00etan, autobus geltokian. Prezioa: 6,5 euro. Izen ematea: urriaren 3a baino lehen Ikastolako idazkaritzan edo Lore eta Uranga burdindegietan.

Azterketa

■ Urriaren 4an, ziklomotor eta motozikleta azterketa teknikoak. Prezioa: ziklomotoak 26,89 euro eta motozikletak zilindradaren arabera. Dokumentazioa: zirkulazio baimena, aseguru ziurtagiria eta azterketa teknikoaren baimena. Izena emateko: 943 626 300. 09:00etatik 13:15era, Herriko Plazan.

Ikastaroak

■ Urriaren 7tik 28ra, lehen sorospen ikastaro teoriko-praktikoa. Irakasleak: DYA Gipuzkoako Irakaskuntza Eskolako sendagile, erizain eta monitoreak. Talde mugatuak. Matrikula: 100 euro. DYAko sorospen titulua lortuko da. 19:00etatik 21:00etara, Zarauzko DYAn -Iturribidea, 12-14, behe-hea. Informazioa: 943 464 622 edo www.dyagipuzkoa.com.

■ Dantza ikastaroak: umeentzako balleta; funky hip-hop; sabel dantza; tribal fusion; burlesque; umeentzako jazz dance; eta zumba. Informazioa: 637 256 851 edo warda_mallal@yahoo.es.

Bingoa

■ Urriaren 9tik aurrera, bingo saioa, asteazkenean, 16:30etik 18:30era, Kultur Etxean.

Aia

Silo-Bolak

■ Urriaren 8an, Silo-bola plastikoen bilketa. Informazioa: Urkome -943 81 65 00- edota Igor -660 049 751-.

Odol-ematea

■ Urriaren 11n, odol-ematea Gipuzkoako odol-emateen elkarteak antolatuta, Sendagilearen etxean,

Atzeko azala: Aiako koadrila Ernio. Goian ezkerretik: Antonio Aierbe, Rufino Seguro, Joxe Mari Lertxundi, Joakin Otamendi eta Inaxio Lazkano. Kuxkurtuta: David Uzkudun, Jexux Albizu, Pedro Amilibia eta Antonio Irigoien.

